## MENDAROZQUETA

Se sitúa en una pequeña elevación, dominando su término, que es bastante llano, y alcanzando una altitud media sobre el nivel del mar de 561 metros.

Población antigua cuya primera aparición en documentos conocidos, actualmente, es del año 1257, con elnombre de Mendasqueta; es en 1294 cuando aparece, de nuevo, pero esta vez con el mismo vocablo que actualmente.

En terreno perteneciente a Ciriano, Mendarózqueta y Mendiguren tuvo asentamiento un lugar denominado Guernica que se cita en varios documentos antes que Mendarózqueta; así aparece nombrado por primera vez en la Reja en el año 1025, con el nombre de Gernica; en 1257 como Guernica, y en 1294 como Gernica.

El número demográfico de Mendarózqueta, como venimos diciendo en la mayoría de los pueblos de la zona, comarca, etc..., ha bajado sensiblemente. En la actualidad son 19 personas de hecho las que pueblan esta localidad.

## MENDAROZKETA

Mendiska baten gainean kokatzen da, bere mugape nahiko laua menperatuko bait luen, itsas mailatik batezbeste 561 metroko altitudera iritsiz.

Antzinako herria dugu hau ere; gaur egun ezagutzen ditugun dokumentuetan lehenbiziko aldiz aipatua agertzen den urtea 1257koa da, Mendasquete izenarekin; 1294ean agertzen da berriro, baina gaur egun daramen hitz horrekin berarekin oraingoan.

Ziriano, Mendarozketa eta Mendiguren herrienak ziren terrenoetan bazen leku bat Gernika izenarekin aipatzen dena, Mendarozketa baino lehen, zenbait dokumentutan; horrela, "Gernica" izenarekin agertzen da 1025ean "Reja"n; "Guernica" izenarekin, 1257ean, eta "Gernica" bezala 1294ean.

Mendarozketaren kopuru demografikoa, herri, eskualde, etab. honetako gehienez esaten ari garen bezala, nabarmenki jaitsi dela aitortu behar dugu hemen ere. Gaur egun 19 baino ez dira herri honetan gertatzez bizi diren pertsonak.

Panorámica de Mendarózqueta.

Mendarozketako ikusmira.

Podemos definir a Mendarózqueta como pequeño rincón, pero fecundo semillero de hombres distinguidos: obispos e inquisidores, principalmente. De las casas solariegas de estos insignes hombres no hay resto alguno, tan solo a la entrada del pueblo y anexo a la moderna edificación donde se encontraba la escuela, quedan unas paredes, así como un solar, denominado "El Palacio", tal vez recordando la ubicación de alguna casa palaciega o solariega, cuna de alguno de estos ilustres prohombres de la defensa de la fé y de las buenas costumbres.

El caserío de este lugar sigue una distribución lineal, con la iglesia en el centro, ocupando ésta el lugar más elevado, de tal forma que, si añadimos la carencia de torre, a los esbeltos alzados, confieren a aquella, un carácter de sobria y homogénea fortaleza. Con la construción recientemente de una vivienda unifamiliar, con distintos materiales y colorido, se ha ensombrecido tal carácter, así como desnaturalizando el entorno de las construcciones rurales que la rodean.

A Mendarózqueta se llega a través del ramal que parte en la autovía Vitoria-Altube, a la altura de la planta embotelladora de la fábrica Kas de Echávarri-Viña, después de atravesar esta localidad y recorrer una distancia de unos 1.500 metros que separan ambas localidades, y seguir un trazado en zig-zag, marcado por el trayecto de la carretera.

Herri txiki baina hainbat gizon ospetsuren mindegi bezala definituko genuke Mendarozketa, apezpiku eta inkisidoreen sorleku batez ere. Gizon prestu horien oinetxeetatik, ordea, ez da alerik ere geratzen. Herrira sarreran bakarrik eta eskola kokatzen zen eraikin berriari erantsita, horma batzuk eta orube bat geratzen dira "Palazioa" izenarekin, beharbada sinesmen eta ohitura onen defentsako gizon entzutetsu horietakoren baten jauretxe edo oinetxeren baten kokapena gogoratuz.

Herri honetako etxeteria linealki hedatua dago, eliza erdigune bezala hartuz, berau aurkitzen bait da lekurik altuenean, eta dorrerik gabeko horma altuekin beste ezer baino gehiago gotorleku soil eta homogeno baten itxura duela. Ondoan etxebizitza familibakar horietako bat eraiki zaio oraindik berriki, eta berori egiteko erabili dituzten materialengatik, koloretasunarengatik, etab., galdu egin du elizak izaera hori eta desnaturalizatu egin da, gainera, inguratzen duten landetxeekiko ingurunea ere.

Mendarozketara joateko, Gasteiztik Altuberako autobidean Etxabarri Dibina herria zeharkatu eta handik 1.500en bat metrotara aurkitzen den Kas fabrikaren boteilatzeko plantaren paretik irteten den adarra hartu behar da, eta berorri jarraitu sigi-sagako trazadura batean, herriraino iritsi arte.



Antigua escuela.
Caserío n.º 7 con detalle de su selecto acceso.

Aintzinako eskola.
7 zk. baserria bere sarrera bikainaren xehetasunarekin.

Como hemos dicho, los edificios siguen una trayectoria rectilínea, dirección Suroeste-Nordeste, cuesta arriba. El primer edificio que encontramos es una construcción reformada recientemente y que anteriormente albergó a la escuela pública de la localidad. En retranqueo con la anterior, así mismo remozada, se halla construcción rectangular tipo almacén. A continuación a nivel superior, se encuentra el solar denominado "Los Palacios" en el que restan parte de dos muros, que posiblemente perteneciesen a la casa o casas solariegas que allí se levantaron.

En la terminación del solar anterior se encuentra la casa catalogada con el n.º 7, en la actualidad cerrada y de la que destacaremos dos cosas: En primer lugar que el cerramiento del piso de su fachada principal es de entramado visto de madera relleno de cerámico, en pequeño retranqueo por el cambio de fábricas; en segundo lugar, que la puerta de acceso se halla recercada de sillares, los cuales van moldurados con rebaje rectilíneo. Al umbral del mismo se accede a través de dos peldaños de piedra.

Lehendik ere esana dugun bezala, aldapan gora eta Hegomendebaldetik Iparrekialderako direkzioan lerro zuzenari jarraiki hedatzen dira hemengo etxeak. Lehenik topatzen duguna oraindik berriki eraberritua dago eta herriko eskola publikoa izana da garai batean. Etxe hau baino atzerago, eta berritua hau ere, biltegi moduko eraikin angeluzuzen bat dago. Jarraian, eta zerbait gorago, "Palazioak" izeneko orubea aurkitzen da, agian bertan egon izan zen edo ziren oinetxeetakoren baten bi murruren parteekin.

Eta orube horren amaieran, 7 zk.arekin katalogaturiko etxea aurkitzen da, itxia gaur egun, baina bi gauza azpimarratzea merezi dituena: Lehenik, bere fatxada nagusiko pisuaren itxiera, zeramikaz betetako zurezko ageriko bilbapena duela, fabriken aldaketagatiko atzerapen txiki batekin; eta bigagarrenik, sarrerako atea higadura angeluzuzenez molduratutako harlanduz egina dela, bertako atalasera iristeko bi harmaila igaro behar direlarik.

Caserío n.º 8 alzados Norte y Este.
Alzado Poniente con la era y cabaña.

8 zk. baserria. Ipar eta ekialdeko altxaerak.
Mendebaldeko altxaera, larrain eta etxordearekin.

Al otro lado del camino se encuentra el caserío catalogado con el n.º 8 y que consta de casa-vivienda, portegado, era y estercolero. Caso singular es que el acceso principal se halle orientado al Norte, tal vez para estar en contacto con la carretera y gozar de las ventajas que en un núcleo rural supone aquello.

A continuación, la carretera que veniamos recorriendo, es cruzada perpendicularmente por un camino cuya rama, en dirección Norte, nos va a transportar al caserío n.º 5, que es el único que se encuentra fuera de la alineación del resto de construcciones que conforman el lugar. Antes de llegar a dicho caserío, siguiendo una suave cuesta abajo, divisamos a nuestra izquierda y a nivel más bajo, restos del antiguo lavadero del lugar a orillas del arroyo que recoge las aguas del término de la Dehesa.

Bidearen bestekaldean 8 zk.arekin katalogatutako baserria aurkitzen da eta etxebizitza, aterpea, larraina eta simaurtegiaz osatua dago. Etxe honek duen kasu berezi bat zera da, bere sarrera nagusiak Iparralderantz ematen duela alegia, errepidearekin kontaktuan egoteko apika, horrelako xehetasun batek baserri batentzat suposatzen duen abantailaz gozatu ahal izateko.

Jarraian, egiten ari ginen errepidea perpendikularki zeharkatzen du bide batek, eta honen eskuineko adarra hartuz gero, Iparralderantz, 5 zk. baserrira eramango gaitu, lerroan eta elkarrengandik gertu aurkitzen diren gainerako herriko etxeetatik bananduta aurkitzen den bakarrera, hain zuzen. Baserri horretara iritsi aurretik, eta beheranzko aldapatxo batetik jarraituz, ezkerretara eta oraindik beherago, antzinako ikuztegiaren kokalekua dakusagu, Angio izeneko mugapeko urak biltzen dituen errekastoaren ertzean.




Caserío n.º 5. Esbelto alzado con detalle interior de su escalera y distribución.

5 zk. baserria. Sarrera segaila, barneko eskailera eta banaketaren xehetasunarekin.

El caserío n.º 5 ha sufrido y va sufriendo paulatinamente remozamientos tanto en su parte interna como externa, al variar su funcionalidad de unidad agropecuaria a segunda vivienda utilizada en las épocas vacacionales.

En el portal destacaremos dos buenas actuaciones, en el remozamiento del mismo; la conservación del granero, transmutado en ropero y, sobre todo, la recuperación de la barandilla de la escalera que se encontraba cegada por tabique de adobe.

Frente al edificio se halla el huerto, a nivel superior que el suelo de la servidumbre de la casa, cuyas tierras son contenidas por muro de mampostería.

5 zk. baserriak jasan ditu jadanik eta oraindik ere jasaten ari da hainbat berritze-lan bai barrualdetik eta bai kanpotik, garai batean zen nekazal eta abelazkuntzako unitatea bigarren etxebizitza edo opor-etxe bezala moldatzeko xedearekin.

Atarian bi iharduketa on azpimarratuko ditugu, berori eraberritzean egin direnak: aletegia kontserbatu egin da, arropa-lehortegi bihurtuz, eta batez ere pezozko trenkada batek takatua zeukan eskaileraren baranda ere berreskuratu egin da.

Edifizioaren aurrean baratza aurkitzen da, etxeko bide-zorra baino maila altuagoan, berorretako lurrei harlangaitzezko murru batek eusten dielarik.

Ermita de la Purísima y detalle del acceso a la iglesia parroquial.

Sortzez Garbiaren ermita eta parroki elizarako sarreraren xehetasuna.

Retornando al cruce de caminos y con dos de sus alzados delimitando parte de aquel se halla una pequeña construcción que alberga a la ermita de Nuestra Señora de la Purísima Concepción y que López de Gereñu dice de ella: "Sin importancia artística, que parece se edificó en ei siglo XVIII ya que en un testamento de Diego López de Maturana, de Echávarri-Viña, año 1776, se señala que deja una casa a espaldas de la ermita nueva de la Purísima. Se trata de una edificación rural, construida de mampostería, con un pequeño soportal al frente que apenas resguarda su fachada de las inclemencias del tiempo". Como queriendo corroborar la época de su construcción, diremos que en el dintel del vano del acceso lleva inscripción: "1755". A la entrada posee benditero labrado en piedra.

Berriro bidegurutzera itzuliz eta bere hormetako bik haren parte bat mugatzen dutela, eraikin txiki bat aurkitzen da Andre Maria Sortzez Garbiari eskainitako ermita dena eta Lopez Gereñuk honela deskribatzen duena: "Garrantzi artistikorik gabea, badirudi XVIII. mendean eraiki zela, zeren eta Etxabarri Dibinako Diego Lopez de Maturanaren 1776ko testamentu batean etxe bat uzten duela esaten bait da Sortzez Garbiaren ermitaren atzekaldean. Landetxe bat da, harlangaitzez egina, bere aurrekaldean fatxada eguraldi txarretatik apenas babesten dion karrerape batekin". Bere eraikuntzako garaia berretsi nahiz bezala, sarrerako baoaren buruan inskripzio bat daramala esango dugu: "1755". Sarreran urbedeinkatu-ontzi bat darama, harrian labratua.

Amazacotada imagen ofrece la iglesia parroquial.

Astunaren irudia eskaintzen du parroki elizak.

La iglesia parroquial, en la parte más alta del lugar, está destinada a San Juan, y dispone delante de ella de un alegre espacio delimitado por muro bajo de mampostería con cubiertas de sillería que actuan de antepecho del mirador o espacio desde el que se contempla una amplia y bonita panorámica de los alrededores de Mendarózqueta.

Parroki eliza, herriko parterik altuenean, San Joani eskainia dago, eta bere aurrekaldean harlanduz estalitako harlangaitzezko karel batek inguratzen duen espazio alai bat dauka. Karel horrek espazio edo begiratoki horretako eskubandarena egiten du, Mendarozketa inguruko panoramika zabal bezain politaz begi-bihotzekin gozatu ahal izateko.



Iglesia parroquial.
Cabecera, primitiva nave romanica y estribo con reloj de sol.

Parroki eliza.
Burualdea, aintzinako nabe erromanikoa eta eguzki-erlojuarekiko istribua.

El templo es de planta rectangular y de concepción gótica, no obstante conserva restos románicos de la antigua iglesia existente y que en momentos de auge económico, los lugareños, ayudados tal vez por las personas ilustres allí nacidas, levantaron un templo con mayores ambiciones que el existente, hasta entonces de configuración románica.

En uno de los contrafuertes derechos de sillería lleva reloj de sol y el año de 1704, grabado. El pórtico de trazado sencillo, da acceso a la entrada del templo que es bajo arco de medio punto.

Al Norte del templo parroquial se encuentran los dos últimos caseríos que configuran la trama edificatoria de esta localidad.

El caserío n.º 3 está conformado por un grupo de distintos cuerpos anexos unos con otros y sobre los que destaca en altura la casa-vivienda, con distribución de huecos simétrica en su fachada. Acusada queda la situación de la cocina

Tenplua oin angeluzuzenekoa eta gotiko estilokoa da; gordetzen ditu, hala ere, oraindik, bertan izan zen aintzinako eliza erromanikoaren aztarnak ere, ekonomialdi oparoagoren batean, bertako jendeak, agian hor jaiotako pertsona ospetsuen laguntzarekin, jaso zuen oraingoa baino anbizio handiagoko eliza erromanikoarenak alegia.

Eskuinaldeko harlanduzko kontrahorma batean eguzki-erlojua darama, eta 1704eko urtea bertan grabatuta. Trazadura sinpleko arkupeak elizako sarrera babesten du eta erdi-puntuko arku batez moldatua dago berori.

Parroki elizatik Iparraldera herri honetako eraikin-multzoa eratzen duten azkeneko bi baserriak aurkitzen dira.

3 zk. baserria bata besteari erantsitako gorputz desberdinezko eraikin-talde batek osatua dago, guztien artean etxebizitzari dagokiona gailentzen dela eta bere fatxadako baoak simetrikoki banatuak erakusten dizkigula. Bestalde, nabar-

Voluminoso aspecto ofrece el caserío n.° 2. Tradicional fachada encalada nos ofrece el caserío n.° 3.

Handi-itxura eskaintzen du 2 zk. baserriak Ohizko fatxada karetua, berriz, 3 zk. baserriak eskaintzen diguna.

por la ampliación que ha sufrido un hueco correspondiente, con el fín de aumentar la luz en su interior, ya que es la dependencia donde normalmente se observa la realidad cotidiana.

El caserío n.° 2 es el último de esta localidad lineal, y podemos decir que es el edificio más interesante y con más pretensiones de este pueblo. La disposición de su planta, de su cubierta a cuatro aguas con el caballete perpendicular a fachada principal, de los aleros en pronunciado voladizo sostenidos por canes portadores de una sencilla y rudimentaria talla, confieren a este edificio el estamento de una casa solariega que con el paso de los años y tal vez de la distinta funcionalidad, aumento de la unidad agropecuaria, hizo en un principio el adosamiento de otras construcciones anexas y en la actualidad la construcción de almacenes modernos, próximos a aquél.

menki gailentzen da sukaldearen kokapena ere berari zegokion baoak jasan duen handitzearengatik, barruan argi gehiago izateko helburuarekin noski, barrundegi honetan egiten da eta normalean eguneroko bizitza.

2 zk.arekin katalogatutako baserria dugu herri lerrokatu honetako azkena, eta esan dezakegu bera dela interesgarriena eta handi-nahi gehien erakusten duena ere. Bere oin-planoaren antolamenduak, bere lau isuriko teilatuak, gailurra fatxada nagusiarekiko perpendikular duela, bere teilategalek, nabarmenki kanporantz irtenak eta harburu trauskil eta oieski landu batzuetan eskoratuak dituela, oinetxe baten tankera ematen diote bastiza honi, gero urteen buruan eta agian beste funtzionaltasun bat emateagatik -baserri bezala handitzeagatik alegia- beste eraikin osagarri batzuk erantsi zitzaizkiolarik eta gaur egun beragandik hurbil biltegi moderno batzuek laguntzen diotelarik.